

**PERTSONA LANGABEAK KONTRATATZEKO UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEAREN
DIRU-LAGUNTZEN OINARRIAK (2016)**

2. DEIALDIA.

Urola Kostako Udal Elkarteko Zuzendaritza Batzordeak, 2016ko urriaren 6an egindako ohiko bilkuran, eskualdeko (Aia, Getaria, Orio, Zarautz edo Zumaiako) enpresentzako diru-laguntzen deialdia eta oinarriak onartu zituen, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu eskatzaile gisa izena emanda dauden langabeak kontratatzeke.

Deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eman zen argitara 2016-10-18an (197. zenbakian) eta eskabideak aurkezteko epea urriaren 28an amaitu zen.

2016ko azaroaren 9ko Udal Elkarteko lehendakariaren B16/00076 ebazpenak diru-laguntzak ebatzi zituen. Ebazpen horren argitara, A motako diru-laguntza bat (gizatalde zehatzentzat gordetako diru-laguntza bat) eman gabe geratu da, eskabiderik izan ez delako Deialdi horretako 2. oinarriak ezartzen dunaren argitara, deialdi horrekin oinarri horietan ezarritako aurrekontu-atala eta kontratu kopuruak agortu ez direnez, Urola Kostako Udal Elkarteak beste deialdi bat egitea erabaki du eskabideak aurkezteko.

Horrenbestez, bigarren deialdia egiten dugu, ezaugarri hauekin:

- Deialdia: Eskualdeko (Aia, Getaria, Orio, Zarautz edo Zumaiako) enpresentzako diru-laguntzak, langabeak kontratatzeke: 2. deialdia. Bigarren honen oinarriak lehendabiziko deialdiaren oinarri berberak dira (lehen deialdia, GAO, 2016-10-18, 197. zenbakia), honako atalak egokituta: 2. deialdian emango den diru-laguntza bakarraren zehaztapena eta eskabideak aurkezteko epea.
- Diru-laguntza gai den kontratu mota: gizatalde zehatzak, kontratu 1, 6 hilabete, lanaldi osoa, 9.000,00 euro
- Oinarriak eta eskabidea egiteko ereduak: <http://www.urolakosta.eus/eu/dirulaguntzak>
- Eskabideak aurkezteko epe-muga: azaroak 25
- Eskabideak aurkezteko lekua: Urola Kostako Udal Elkartea, Urdaneta bidea 6, 20800 Zarautz

UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEKO ZUZENDARITZA BATZORDEAK 2016KO URRIAREN 6AN ONARTUTAKO DIRU-LAGUNTZA DEIALDIAREN OINARRIAK: ESKUALDEKO ENPRESENTZAKO DIRU-LAGUNTZAK, LANGABEAK KONTRATATZEKO. BIGARREN DEIALDIA.

Krisialdiaren gizarte ondorioak larrienetako bat enpleguaren galera izan da. Azken hiru urteetan, ordea, enplegua sortu eta langabezia tasak behera egin du gure eskualdean, krisialdiaren aurreko urteetako tasetatik oraindik urrun ibili arren. Hala ere, gizatalde batzuk beste batzuk baino zailtasun handiagoak dituzte lana lortzeko (emakumeek edo 45 urtetik gorakoek...).

Horrekin batera, krisialdiak eragin nabarmena izan du enpresen lehiakortasunean eta urte zailak igarotzen ari dira enpresa asko eta asko, merkatuaren eskakizunetara moldatzeko eta berritzeko ahaleginean.

Deialdi honen helburua, beraz, bikoitza da: alde batetik, enpresei laguntzea langileak kontratatzekeo gastuei aurre egiten eta, ondorioz, lehiakortasuna hobetzen; eta, beste alde bestetik, enplegurako politika aktiboak indartu eta lan munduan sartzeko zailtasunak dituzten gizataldeetako pertsonak kontratatzea saritzea.

Hori lortzeko, hain zuzen ere, bideratu da eskualdeko enpresentzako diru-laguntza deialdi hau, langabeak kontrata ditzaten.

Oinarri hauek arautzen duten diru-laguntzen deialdia Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak eta Urola Kostako Udal Elkarteak finantzatu dute. Diru-laguntza hauetarako 99.000,00 euroko aurrekontu publikoa erabiliko da, horietatik 74.246,90 euro Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak finantzatu ditu eta gainerako 24.753,10 euro Urola Kostako Udal Elkarteak.

Deialdi hau kokatzen da Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren 2016ko Enplegua Sustatzeko Tokiko Ekintzen barruan (Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren diru-laguntza deialdia, enplegua sustatzeko toki ekintzetarako: Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluaren 2016ko ekainaren 15eko erabakia, EHAA 2016-06-16, espediente zenbakia R/16-LPE-14G). Horrenbestez, diru-laguntzen deialdi honek bete behar ditu Lanbideren 2016ko ekainaren 15eko erabakiak jarritako baldintza guztiak.

Deialdi honetan lehentasuna izango dute emakumeak kontratatzen dituzten eskabideek (Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluaren 2016ko ekainaren 15eko erabakiak ezartzen duena betetzeko), izan ere, 5 diru-laguntza gordeko dira emakumeak kontratatzen dituzten eskabideentzat eta gainerakoetan ere puntuazio handiagoa izango dute emakumeak kontratatzen dituzten eskabideek.

OINARRIAK

1. DEIALDIAREN HELBURUA

Deialdi honetako oinarri hauek arautzen dituzten diru-laguntzen helburua da laguntza ekonomikoak ematea eskualdeko (Aia, Getaria, Orrio, Zarautz edo Zumaiako) enpresa txiki eta ertainei, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu eskatzaile gisa izena emanda dauden pertsona langabeak kontratatzekeo.

Deialdi honen bidez diruz lagunduko diren kontratazioak 2016ko irailaren 1etik 2017ko maiatzaren 31era bitarteko epean egingo dira. Beraz, diruz lagundutako kontratua 6 hilabetekoa

baldin bada, 6 hilabete horiek aipatutako epealdiaren barruan egon behar dute, hau da irailaren 1etik 2017ko maiatzaren 31ra doan epealdiaren barruan.

Diru-laguntza eskatu ahal izango da deialdi hau argitaratzeko unean dagoeneko formalizatuta dauden kontratuentzat (betiere 2016-09-01etik aurrera egin bada) edo oraindik egin gabe dauden kontratuentzat.

2. KONTRATAZIOAK EGITEKO DIRU-LAGUNTZAK

Deialdi honetan aurreikusitako aurrekontua honela banatuko da, kontratuaren iraupena eta lanaldia eta kontratatutako pertsonaren profila kontuan hartuta:

Mota	Iraupena	Lanaldia %	Gizataldea	Kontratuak	Gordetako aurrekontua
A	6 hilabete	100	Zehatza	1	9.000,00

Gizatalde zehatzak dira oinarri hauetako 6. atalean zehaztutako baldintzak betetzen dituztenak, hala nola, diru-sarrerak bermatzeko errenta (DBE/RGI) jasotzen duten pertsona titularrak, lehen enplegua eskuratzen duten 35 urtetik beherakoak, edo kontratatu aurreko 18 hiletatik gutxienez 12 hiletan Lanbiden izena emanda izan diren pertsonak. Gainerakoak beste gizataldeak izeneko multzoan sartzen dira.

3. ARAUBIDEA

Deialdi hau arautuko du honako araubideak:

1. Urola Kostako Udal Elkarteko Zuzendaritza Batzordeak 2016ko urriaren 6ko bilkuran onartutako oinarriak (oinarri hauek): eskualdeko enpresentzako diru-laguntzak, langabeak kontratatzeke.
2. Erabakia, 2016ko ekainaren 15ekoa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluarena (EHAA 2016-06-16, 114. zk.). Horren bidez argitaratzen da enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako 2016ko ekitaldiko laguntzen deialdia.
3. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren Ebazpena, 2016ko abuztuaren 12koa, Urola Kostako Udal Elkarteari enplegua sustatzeko toki ekintzetarako 2016 ekitaldiko diru-laguntza ematen diona (Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2016ko ekainaren 15eko erabakiak onartutako deialdia).
4. 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, diru-laguntzei buruzko lege orokorra (BOE 18/11/2003).
5. 887/2006 Errege Dekretua, ekainaren 21ekoa, diru-laguntzen lege orokorra onartzen duen erregelamendua (BOE 2006/07/25).

4. ENPRESA ONURADUNAK ETA BALDINTZAK

Deialdi honek aurreikusten dituen diru-laguntzen onuradun izango dira ondoko baldintza hauek betetzen dituzten enpresak:

1. Edozein forma juridikoko enpresa edo erakunde enplegatzailea izatea, egoitza Urola Kosta eskualdean duena (Aia, Getaria, Orio, Zarautz edo Zumaián).

2. IAE-JEZn alta emanda egotea eta zerga horren betebeharrak egunean ordainduta izatea, betiere enpresaren jarduerak zerga hori ordaintzea eskatzen badu.
3. Administrazio edo erakunde publikoen edo txikitzat hartzen ez diren enpresen menpeko ez izatea edo horiek %25 edo gehiagoko partehartzerik ez izatea.
4. Zerga betebeharrak (udalekoak nahiz foru ogasunekoak) eta Gizarte Segurantzako betebeharrak betetzea.
5. Diru-laguntza publikoak jasotzetik baztertuta ez egotea arau-hausteak egiteagatik.
6. Diru-laguntza bidez egindako kontratazioak enplegu-sorrera garbia eragitea enpresan, diruz lagunduak izan diren kontratuen bidez kontratatutako pertsonak enpresan sartu aurreko 3 hiletan enpresak batez beste zuen plantilla osoarekiko. Horretarako, alderatuko dira aurreko hiru hilabeteetako batez besteko plantilla eta kontratatutako pertsonaren kontratuaren hasierako datako plantilla. Plantillaren batez bestekoa kalkulatzeko lanaldi osoan urte osoz lan egindako pertsonen kopuruak erabiliko dira. Lanaldi partzialeko langileen kasuan, lan egindako orduen proportzioa hartuko da kontuan.
7. Baztertu egingo dira eta ezingo dute diru-laguntzarik jaso langabeak kontratatzeke Urola Kostako Udal Elkarteak 2014 edota 2015ean langabeak kontratatzeke egin zituen diru-laguntza deialdien bidez kontratatutako pertsona berberak kontratatzeke eskabideak.
8. Baztertu egingo dira eta ezingo dute diru-laguntzarik jaso langabeak kontratatzeke Urola Kostako Udal Elkarteak 2014 eta 2015ean langabeak kontratatzeke egin zituen diru-laguntza deialdien bidez diru-laguntza eskuratu zuten enpresa onuradunek (bi deialdietan).
9. Eskabideen balorazioan penalizatu egingo dira langabeak kontratatzeke Urola Kostako Udal Elkarteak 2014 eta 2015ean egin zituen bi deialdietako batean diru-laguntza jaso zuten eskualdeko enpresak, oinarri hauetako balorazioen irizpideen taulan agertzen denaren arabera.

5. KONTRATU MOTA ETA KONTRATUAREN EZAUGARRIAK

Diruz lagunduko den kontratuak honako ezaugarriak izan behar ditu:

1. Kontratuaren iraupena eta lanaldia: eskatu ahal izango dira honako iraupen eta lanaldia duten kontraturako laguntzak:

A motak: Iraupena 6 hilabete (gutxienez), lanaldia %100, gizatalde zehatzak
2. Kontratuak edozein kontratazio-modalitatekoak izan daitezke. Hala ere, ez dira onartuko prestakuntzarako eta ikaskuntzarako kontratuak.
3. Diruz lagun daitezkeen kontratuak izateko, kontratu horiek enplegu-sorrera garbia eragin behar dute, diruz lagunduak izan diren kontratuen bidez kontratatutako pertsonak enpresan sartu aurreko 3 hiletan enpresak batez beste zuen plantilla osoarekiko. Toki-erakundeak egiaztatu behar du hori horrela dela.

4. Ez da kontratatzeke diru-laguntzarik emango enpresaburuaren, enpresa-zuzendarien eta sozietateen izaera juridikoa duten enpresen administrazio-organoetako kide diren pertsonen ezkontideak, ondorengoak eta gainerako senideak kontratatzeke, baldin eta haiekin bigarren mailara arteko odolkidetasunezko edo afinitatezko harremana badute, ezta hasieran adierazitako pertsona horiek kontratatzeke ere.
5. Deialdi honen bidez diruz lagunduko diren kontratazioak (6 hilabetekoak edo 3 hilabetekoak) 2016ko irailaren 1etik 2017ko maiatzaren 31era bitarteko epean egingo dira. Beraz, diruz lagundutako kontratua 6 hilabetekoa baldin bada, 6 hilabete horiek aipatutako epealdiaren barruan egon behar dute, hau da, irailaren 1etik 2017ko maiatzaren 31ra doan epealdiaren barruan. Diru-laguntza eskatu ahal izango da deialdi hau argitaratzeko unean dagoeneko formalizatuta dauden kontratuentzat (betiere 2016-09-01etik aurrera egin bada) edo oraindik egin gabe dauden kontratuentzat.
6. Kontratutako pertsonak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan izena emanda egongo dira enplegu eskatzaile gisa, langabezia egoera.
7. Kontratutako pertsonak beren lana egingo dute (edo atxikita egongo dira) eskualdean (Aia, Getaria, Orio, Zarautz edo Zumaian) kokatutako lantokietan.
8. Eskabideen balorazioan lehentasuna izango dute eskualdean (Aia, Getaria, Orio, Zarautz edo Zumaian) erroldatutako pertsonak kontratatzen dituzten eskabideek, oinarriotako balorazio irizpideen taulan agertzen denaren arabera.
9. Pertsona berari ezingo zaio kontratu bat baino gehiago egin deialdi honen diru-laguntzarekin (edo Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren enplegua sustatzeko toki ekintzetarako laguntzen finantzaketa jaso duten antzeko deialdien diru-laguntzarekin).
10. Diru-laguntza deialdi honetan lehentasuna izango dute, batetik, emakumeak kontratatzen dituzten eskabideek eta, bestetik, 55 urtetik gorako pertsonak kontratatzen dituzten eskabideek (lehentasun hori balorazio irizpideen puntuazioan ezartzen da). Lehentasun horri dagokionez, kontuan hartu eta ezarriko dira Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2016ko ekainaren 15eko erabakiak ezartzen dituen ehuneko eta baldintzak.

6. DIRU-LAGUNTZEN ZENBATEKOAK

Diru-laguntzaren kopurua honakoak izango da, gehienez:

Mota	Kontratuaren iraupena	Kontratuaren lanaldia %	Kontrataturako pertsonaren gizataldea	Diru-laguntza	Gehienez
A	6 hilabete gutxienez	100	Zehatza	9.000,00	Lan-kostuen %100 (lansaria eta GS)

Gizatalde zehatzetako pertsonatzak hartuko dira honako hiru baldintza hauetako bat betetzen dutenak:

1. Diru-sarrerak bermatzeko errenta (DBE/RGI) jasotzen duten pertsona titularrak.
2. Lehen enplegua eskuratzen duten 35 urtetik beherako pertsonak.
3. Kontratatu aurreko 18 hiletatik gutxienez 12 hiletan Lanbiden izena emanda izan diren pertsonak

7. ESKAERAK ETA AURKEZTU BEHAR DIREN DOKUMENTUAK

Oinarri hauek arautzen dituzten diru-laguntzen eskaera egiteko honako dokumentuak aurkeztu behar dira:

1. Eskabidea, A eranskinaren arabera egina, behar bezala beteta. A eranskinak honako dokumentuak ditu: eskabidea (A1), kontratazioaren datuak (A2) eta erantzukizun adierazpena (A3). A2 eranskin bat aurkeztuko da eskatutako kontratazio bakoitzeko.
2. Lege-ordezkararen NANren fotokopia.
3. Enpresa eskatzailearen IFZ txartelaren fotokopia.

Horrez gain, Balorazio Mahaiak erabaki ahal izango du eskatzaileei bestelako dokumenturen bat aurkezteko eskatzea, eskabidea baloratzeko beharrezkoa dela iruditzen baldin bazaio.

Urola Kostako Udal Elkarteak zuzenean egiaztatuko ditu honako datuak, dagokion administrazio publikoarekin harremanetan jarrita:

- Enpresa eskatzailea IAE-JEZren alta emanda egotea.
- Enpresa eskatzaileak zerga betebeharrak (udal zergak, foru ogasunen zergak) eta Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean ordainduta edukitzea.
- Kontrataturako pertsonaren erroldatze datuak (Aia, Getaria, Orio, Zarautz edo Zumaian erroldatuta egotea eta data).
- Kontrataturako pertsonaren egoera Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan (enplegu eskatzailea, langabezia egoeran)

8. ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA ETA LEKUA

Eskabideak aurkeztu behar dira Urola Kostako Udal Elkartearen erregistro orokorrean (Urdaneta bidea 6, Abendaño industrialdea, 20800 Zarautz), astelehenetik ostiralera, 8:00etatik 15:00etara.

Eskabideak aurkezteko epea hasiko da deialdia eta oinarriak Udal Elkartearen webgunean (<http://www.urolakosta.eus/eu/dirulaguntzak>) argitaratu eta hurrengo egunean eta amaituko da 2016ko azaroaren 25ean. Halaber, deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean ere argitaratuko da.

Udal Elkartearen webgunean argitaratuko dira oinarriak eta eskabidea nahiz zuriketak egiteko eredu eta eranskinak.

Horrez gain, deialdiari buruzko galdera eta informazio-eskaerak telefonoz (943890808) edo emailaz (harrera@urolakosta.eus) egin ahal izango dira.

Eskabidea ez bada aurkezten behar bezala edo ez badira aurkezten zazpigarren oinarrian zehaztuta dauden dokumentuak, eskatzaileari 10 laneguneko epea emango zaio eskabidea osatu edo aurkeztu behar diren dokumentuak aurkezteko. Epe horretan eskabidea osatzen ez badu eskabidea baztertu egingo da. Administrazioak eskabidea baztertzeko ebazpena egingo du berariaz eta jakinarazi egingo dio interesdunari.

9. DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA

Diru-laguntzak emango dira lehiaketa bidez, oinarri honetan ezartzen diren prozedura eta balorazio irizpideak aplikatuta (balorazioan lortutako puntuen arabera), harik eta deialdi honetako bigarren oinarrian ezarritako diru-kopurua edo eta kontratu kopurua agortu arte.

Lehiaketatik baztertu egingo dira oinarriotan ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten eskabideak.

Balorazioan puntu berdinketa

Eskabideen balorazioa egin eta berdinketa gertatzen bada, honela konponduko da berdinketa: berdinduta dauden eskabideen hurrenkera erabakiko da taulako irizpideen banan-banako hurrenkeran puntu gehien dituenaren alde, hau da, lehen irizpideen puntu gehien lortu duena aurretik; irizpide horretan berdina badaude bigarren irizpidean puntu gehien duena aurretik eta abar.

Eskabideak baloratzeko irizpideak

Onartzen diren eskabideak honako balorazio irizpide hauen arabera balioetsiko dira:

	Balorazio-irizpidea	Puntuak
1.	Kontratutako pertsona emakumea izatea.	5 puntu
2.	Kontratutako pertsona 45 urtetik gorakoa izatea.	15 puntu
3.	Kontratutako den pertsona eskualdeko udalerriren batean (Aia, Getaria, Orio, Zarautz edo Zumaian) errolatuta egotea oinarri hauek onartzeko datan.	15 puntu
4.	Enpresa sortu berria izatea (eratze alta 2014-09-01etik aurrerakoa).	10 puntu

5.	Kontratatu den pertsonari egindako lan-kontratuaren iraupenak diruz lagundutako epea gainditzea hiru hilabetez gutxienez.	5 puntu
6.	Kontratatuako pertsonarekin eragindako enplegu sorrera garbia izatea gutxienez puntu batekoa, aurreko hiru hilabeteetako plantillaren batez bestekoarekin alderatuta.	5 puntu
7.	Enpresa eskatzailea izatea langabeak kontratatzeke Urola Kostako Udal Elkartean 2014ko edo 2015eko deialdian diru-laguntza jasotako enpresa.	Penalizazioa*

*Penalizazioa: Udal Elkartean 2014ko edo 2015eko deialdian diru-laguntza jasotako enpresen eskabideak baloratuko dira gainerakoak baloratu eta diru-laguntzak esleitu ondoren, baldin eta deialdi honetarako onartutako laguntza kopuru edo aurrekontu kredituak agortzen ez badira.

10. DIRU-LAGUNTZAK EBAZTEKO ORGANO ESKUDUNA

Diru-laguntzak emateko, zuriaketak onartu eta ordainketak agintzeko eskumena dagokio Udal Elkarteko Lehendakariari, Balorazio Mahaiaren alde aurreko txosten eta proposamena aintzat hartuta.

Halaber, Udal Elkarteko Lehendakariari dagokio oinarri hauek interpretatzeko eskumena eta diru-laguntzen deialdi hau kudeatzen sor litezkeen gorabehera eta zalantzak argitu eta ebazteko eskumena, betiere Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren irizpide eta jarraibideen argitara.

Izapidetzen diren eskaera espedienteak 60 eguneko epearen barruan ebatziko dira, gehienez ere.

11. BALORAZIO MAHAIA

Balorazio-mahaia honako hauek osatuko dute:

Mahaiburu: Udal Elkarteko lehendakaria

Mahaikide: Udal Elkarteko Prestakuntza eta Enpleguko arduraduna; Enpresen Zerbitzuen saileko teknikari bat; Udal Elkarteko idazkari-kontuhartzailea

Idazkari: Euskara eta Komunikazio Zerbitzuko arduraduna

Balorazio Mahaiaren egitekoa izango da eskabideen balorazioa egitea, oinarriotan ezarritakoaren arabera, eta diru-laguntzen proposamena egitea. Halaber, aurkeztutako zuriaketen gaineko proposamena ere egingo du.

12. ENPRESA ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Enpresa onuradunek honako betebeharrak dituzte:

1. Diruz lagundutako kontratazioaren justifikazioak aurkeztea deialdi honetako hamahirugarren oinarrian ezarritako eran.

2. Indarrean dauden lan arloko araubidea eta lan arriskuak prebenitzeko araubidea betetzea.
3. Eskabidean adierazitako lan-baldintzak eta lan-sari baldintzak bermatzea, lanpostuaren lanbide kategoria eta aplikatzekoa den lan-hitzarmen edo enpresa-hitzarmenaren argitara.
4. Udal Elkarteari berehala jakinaraztea (zazpi eguneko epearen barruan) diru-laguntzaren objektuari eragiten dion gorabehera oro (lanaldiaren aldaketak, kontratu-aldaketak, bajak, ordezkapenak...).
5. Diru-laguntzen jarraipena egiteko Udal Elkarteak eskatzen dizkion eta emandako diru-laguntzarekin zerikusia duten datuak eta informazioa ematea.

13. DIRU-LAGUNTZEN ZURIKETAK ETA ORDAINKETAK

Enpresa onuradunei diru-laguntza ordainduko zaie 3 zatitan, ondoren zehazten diren hiru zuriketak egin eta onartu ondoren:

1. Lehen ordainketa (onartutako diru-laguntzaren %30) egingo da enpresa onuradunak kontratazioa egin izanaren justifikazioa aurkeztu ondoren. Zuriketa hori aurkeztu behar da diruz lagundutako kontratua egin eta 30 eguneko epearen barruan. Justifikazio horretan honako dokumentuak aurkeztu behar dituzte:
 - B eranskina (oinarrien amaieran dator), behar bezala beteta. Honako dokumentuak ditu: kontratua egin izanaren justifikazioa eta lehen ordainketaren eskaera (B1) eta kontratuaren fitxa (B2). B2 eranskin bat aurkeztuko da egindako kontratu bakoitzeko.
 - Kontratatutako pertsonaren NANren kopia.
 - Kontratatutako pertsona oinarriotan zehaztutako gizatalde zehatzen batekoa izanez gero, egoera hori egiaztatzeko agiriak.
 - Kontratatutako pertsonaren lan-kontratua erregistratu izanaren SEPEn agiriaren kopia eta Gizarte Segurantzako alta-agiriaren kopia.
 - Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiak egindako ziurtagirien kopiak: ziurtagiri bat agertzen duena kontratatutako pertsona laneratu aurreko 3 hilabeteetako enpresaren batez besteko plantilla; eta bestea agertzen duena kontratatutako pertsona laneratutako hilabeteko enpresaren batez besteko plantilla.

Horrekin batera, Udal Elkarteak zuzenean dagokion administrazioarekin harremanetan jarrita egiaztatuko ditu: kontratatutako pertsonaren erroldatze datuak eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan lan eskatzaile langabe gisa inskribatuta egotea.

2. Bigarren ordainketa (onartutako diru-laguntzaren %30) egingo da bigarren zuriketa aurkeztu eta onartu ondoren. Bigarren zuriketarako honako dokumentuak aurkeztuko dira:
 - C eranskina (oinarrien amaieran dator), behar bezala beteta.
3. Hirugarren eta azken ordainketa (onartutako diru-laguntzaren %40) egingo da amaierako zuriketa aurkeztu eta onartu ondoren. Diru-laguntzaren amaierako zuriketa aurkeztu behar da gehienez ere 60 eguneko epearen barruan, diruz lagundutako kontratazio-epea amaitzen den egunetik kontatzen hasita, eta betiere 2017ko uztailaren 14aren aurretik. Amaierako zuriketa egiteko honako dokumentuak aurkeztu behar dira:

- D eranskina (oinarrien amaieran dator), behar bezala beteta. Honako dokumentuak ditu: amaierako justifikazioa eta hirugarren ordainketa egiteko eskaera (D1) eta kontratuaren fitxa (D2). D2 eranskin bat aurkeztuko da egindako kontratu bakoitzeko.
- Diruz lagundutako kontratuaren epealdiko enpresaren TC1 eta TC2 dokumentuen kopiak.
- Diruz lagundutako kontratuaren nominen kopiak.

Diru-laguntza ordainduko da banku transferentzia bidez. Ordainketak egingo dira eskatzaileak eskabidean adierazitako kontu zenbakira, 30 eguneko epearen barruan, ordainketa bakoitza egitea onartzen den egunetik kontatzen hasita.

Diruz lagundutako kontratua ez bada egiten eskabidean adierazitako epean edo oinarri hauetako 13.1 atalean adierazitako dokumentuak ez badira aurkezten ezarritako epean, onuradunak diru-laguntzarako eskubidea galdu egingo du (eta ez zaio lehen ordainketa egingo), betiere kontratua gauzatzeko epeak luzatzeko zentzuzko arrazoirik izan ezean. Diru-laguntza galtzeko erabakia berariaz hartuko du Urola Kostako Udal Elkartearen Lehendakariak, dagokion txostena kontuan hartuta.

Halaber, amaierako zuriaketan onuradunak ez baditu betetzen eta egiaztatzen diru-laguntza jasotzeko baldintzak, diru-laguntza galdu egingo du. Kasu horretan ere diru-laguntza galtzeko erabakia berariaz hartuko du Udal Elkartearen Lehendakariak, dagokion txostena kontuan hartuta, eta diru-laguntzaren lehen ordainketa itzultzeko prozedurari hasiera emango zaio.

Diruz lagundutako lan-kontratua amaitzen bada deialdian adierazitako gutxieneko epea edo eskabidean adierazitako epea bete baino lehen, eskatzaileak diru-laguntzaren ordaina jasotzeko eskubidea galduko du, betiere kontratua ez bada amaitu erakunde kontratatzailearen erabakiz. Kasu horretan diru-laguntzaren zenbatekoa murriztu egingo da lan-kontratua indarrean egon den epearen proportzioan eta, kasuan kasu, diru-laguntzaren zenbatekoa doitu eta dagozkion itzulketak egiteko prozedura bideratuko da.

Diruz lagundutako kontratuaren iraupen-epearen barruko gaixotasun arrunten nahiz lan-gaixotasunen ondorio diren bajak ez dira diruz lagunduko, betiere bajaran dagoen langilea ordezkatzeko ez bada. Kasu horretan kontratazio epeak lagunduko dira soilik. Gisa horretako gorabeherak Udal Elkarteari jakinarazi behar zaizkio, deialdi honetako 12. oinarriaren arabera.

14. BALDINTZAK EZ BETETZEA

Deialdiak nahiz eskatzailearen eskabideak adierazitako baldintzak betetzen ez badira eta ez betetzea enpresa onuradunari nahiz diru-laguntza bidez kontratatutako pertsonari baldin badagokio, eskatzaileak esleitutako diru-laguntzaren ordaina jasotzeko eskubidea galduko du, arrazoitutako ebazpenaren bidez.

Halaber, zuriaketa onartu eta ordainketa egin ondoren Udal Elkarteak atzematen badu onuradunak baldintzak ez dituela bete, diru-laguntza itzultzeko espedientea bideratuko du Udal Elkarteak, baldintzak ez betetzeagatik, indarrean dagoen araubideak ezartzen duenaren argitara.

15. BESTE DIRU-LAGUNTZA EDO LAGUNTZA BATZUEKIN BAT ETORTZEA

Deialdi honen bidez emango diren diru-laguntzak bateraezinak dira kontzeptu eta xede berbererako administrazio edo erakunde publiko zein pribatuek emandako beste edozein diru-laguntza edo laguntzarekin, Gizarte Segurantzak emandako hobariekin izan ezik.

16. DATU PERTSONALEN BABESA

Izaera Pertsonaleko Datuak Babestekoa den abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak arautzen duena betetzeko, Urola Kostako Udal Elkarteak deialdi honetan arautzen diren laguntza-eskaeren bidez eskuratzen dituen datu pertsonalak jasoko ditu "prestakuntza eta enplegu programak" eta "eskualdeko enpresak" izeneko fitxategietan. Fitxategi horiek arautzen ditu Udal Elkarteko Zuzendaritza Batzordearen 2010eko otsailaren 4ko akordioak (Urola Kostako Udal Elkartearen datu pertsonalen fitxategiak arautzeko akordioak).

Datuak laga ahal izango zaizkio Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari, oinarri hauek arautzen duten diru-laguntza-deialdiaren programa burutu ahal izateko Udal Elkarteari erakunde horrek emandako diru-funtsa zuritzeko.

Horrez gain, pertsona interesdunek datuak eskuratu, zuzendu, ezeztatu eta haien aurka egiteko eskubideak erabili ahal izango dituzte, honako helbidera idatzia bidalita: Urola kostako Udal Elkarte, Urdaneta bidea 6, 20800 Zarautz.

17. ERREKURTSOAK

Oinarri hauek onartzeko ebazpenak amaiera ematen dio administrazio bideari. Beraz, akordio horren aurka, batetik, berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke, administrazioarekiko auzi-errekurtsoren aurretik, hilabeteko epearen barruan, edo, bestetik, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epearen barruan. Epe horiek zenbatzen hasiko dira oinarriak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean. Errekurtso horiek aurkezteak ez die kalterik egiten interesdunek egoki irizitako bestelako errekurtso edo eginbideei.

EGINBIDEA:

Eginbidea, nik, Urola Kostako Udal Elkarteko idazkari-kontuhartzaileak egina, jasota uzteko diru-laguntzen oinarri hauek Urola Kostako Udal Elkarteko lehendakariak onartu dituela, 2016ko azaroaren 15eko ebazpenaren bidez.

Zarautzen, 2016ko azaroaren 15ean

A1 ERANSKINA / ANEXO A1

UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEAREN DIRU-LAGUNTZAK, LANGABEAK KONTRATATZEKO 2016	AYUDAS DE LA MANCOMUNIDAD UROLA KOSTA PARA LA CONTRATACIÓN DE PERSONAS DESEMPLEADAS 2016
ESKABIDEA 2. DEIALDIA	SOLICITUD 2ª CONVOCATORIA

ESKATZAILEA / SOLICITANTE

ENPRESA / EMPRESA

Izena Denominación		IFK zk. Nº CIF	
Helbidea Razón social		Udalerría Municipio	
Emaila		Telefona	
Kontu korrante zk. Nº cuenta corriente			
Enpresa eratzeko data Fecha constitución de la empresa			

LEGEZKO ORDEZKARIA / REPRESENTANTE LEGAL

Izen-abizenak Nombre y apellidos		NAN zk. Nº DNI	
Enpresan duen kargua Cargo en la empresa			
Emaila		Telefona	

ESKAERA	SOLICITUD
Behean sinatzen duenak, goian adierazitako enpresan izenean, eskaera egiten dio Urola Kostako Udal Elkarteari langabeak kontratatzeke, eskabide honetan zehazten diren ezaugarriekin. 2016.	El abajo firmante, en nombre de la empresa arriba referenciada, realiza la presente solicitud a la Mancomunidad Urola Kosta dentro del programa de ayudas para la contratación de personas desempleadas. 2016.

Data Fecha	Sindadura eta zigilua Firma y sello
----------------------	---

A2 ERANSKINA / ANEXO A2

UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEAREN DIRU-LAGUNTZAK, LANGABEAK KONTRATATZEKO 2016	AYUDAS DE LA MANCOMUNIDAD UROLA KOSTA PARA LA CONTRATACIÓN DE PERSONAS DESEMPLEADAS 2016
ESKABIDEA KONTRATUAREN DATUAK	SOLICITUD DATOS DEL CONTRATO

KONTRATUAREN EZAUGARRIAK / DATOS DEL CONTRATO

Enpresa Empresa		IFK zk. Nº CIF	
Lantokia Centro de trabajo		Udalerria Municipio	
Lanpostua Puesto de trabajo			
Eginkizun nagusiak Funciones básicas			
Lan-hitzarmena Convenio laboral			
Kontratu-mota Tipo de contrato			
Lanaldia Jornada			
Iraupena Duración		Hasiera Inicio	Amaiera Fin

KONTRATATUKO DEN PERTSONAREN EZAUGARRIAK
CARACTERÍSTICAS DE LA PERSONA A CONTRATAR

Emakumezkoa Mujer		Gizonezkoa Hombre	
Jaiotze-data Fecha nacimiento		Adina Edad	

Gizataldea zehaztu (markatu "x" hizkiarekin) / Señalar colectivo (señalar con una "x")

RGI jasotzaile titularrak Perceptores de RGI	
Lehen enplegua eskuratzen duten 35 urtetik beherako pertsonak Personas menores de 35 años que accedan a su primer empleo	
Kontratatu aurreko 18 hiletatik gutxienez 12tan Lanbiden izena emanda izan diren pertsonak Personas inscritas como demandantes al menos 12 meses en 18 meses anteriores a la contratación	
Beste gizataldeak Otros colectivos	

A3 ERANSKINA / ANEXO A3

UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEAREN DIRU-LAGUNTZAK, LANGABEAK KONTRATATZEKO 2016	AYUDAS DE LA MANCOMUNIDAD UROLA KOSTA PARA LA CONTRATACIÓN DE PERSONAS DESEMPLEADAS 2016
ESKABIDEA ZINPEKO ADIERAZPENA	SOLICITUD DECLARACIÓN RESPONSABLE

ENPRESA / EMPRESA

Izena Denominación		IFK zk. Nº CIF	
Helbidea Razón social		Udalerria Municipio	

LEGEZKO ORDEZKARIA / REPRESENTANTE LEGAL

Izen-abizenak Nombre y apellidos		NAN zk. Nº DNI	
Enpresan duen kargua Cargo en la empresa			

ZINPEKO ADIERAZPENA Behean sinatzen duenak, goian adierazitako enpresaren izenean, honakoa adierazten du:	DECLARACIÓN RESPONSABLE La persona abajo firmante, en nombre de la empresa arriba referenciada, declara:
--	---

<ol style="list-style-type: none"> Eskatzaileak oinarrietan ezarritako baldintza guztiak betetzen dituela eta oinarriak oso-osorik eta salbuespenik gabe onartzen dituela. Konpromisoa hartzen duela eskabide honetako kontratua egiteko, eskabidean adierazitakoaren arabera, eta Urola Kostako Udal Elkarteari berehala jakinarazteko diruz lagundutako kontratuaren datu nahiz baldintzei eragiten dien aldaketa oro. Konpromisoa hartzen duela indarrean dauden lan arloko eta lan arriskuen prebentzioaren arloko lege eta erregelamenduak betetzeko. Zerga arloko betebeharrak (udalekoak, foru ogasunekoak) eta Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean beteta dituela eta konpromisoa hartzen duela betetzeko. Enpresa eskatzailea ez dela menpeko edo ez duela %25eko (edo hortik gorako) sozietate mailako parte hartzerik administrazio edo erakunde publikoekiko edo enpresa txiki ez direnekiko. 	<ol style="list-style-type: none"> Que reúne todos los requisitos establecidos en la convocatoria y acepta íntegramente todos los términos de la misma, sin salvedad alguna. Su compromiso de realizar la contratación objeto de esta solicitud en los términos señalados en la misma, y de comunicar a la Mancomunidad de forma inmediata cualquier modificación que afecte a los datos y requisitos del contrato formalizado. Su compromiso de cumplir la legislación y normativas laborales y de prevención de riesgos laborales vigentes. Que está al día en los pagos de las obligaciones tributarias (municipales y forales) y de la Seguridad Social y que se compromete a su cumplimiento. Que la empresa solicitante no es dependiente ni está societariamente vinculada o participada en el 25% o más a administraciones, entes u organismos públicos ni empresas no consideradas pequeñas.
--	--

<p>6. Enpresa eskatzailea edo kontratatuko den pertsonaren lantokia eskualdeko udalerrri batean kokatuta dagoela (Aia, Getaria, Orio, Zarautz edo Zumaian).</p> <p>7. Enpresa eskatzailea ez dagoela 38/2003 Legearen, diru-laguntzei buruzko lege orokorraren, 13. artikulua aurreikusitako egoeratan.</p> <p>8. Enpresa eskatzaileak laguntzaren bidez kontratatutako pertsonak ez direla izango enpresaburuaren, zuzendarien eta sozietateen izaera juridikoa duten enpresen administrazio-organotako kide diren pertsonen ezkontide, ondorengo edo gainerako senide, baldin eta haiekin bigarren mailara arteko odolkidetasun edo afinitate harremana badute, ezta hasieran adierazitako pertsona horiek ere.</p> <p>9. Eskabide honen xede den kontratuak enplegu-sorrera garbia eragingo duela, hau da, diruz lagundutako kontratuarekin gainditu egingo dela kontratatutako pertsona laneratu aurreko 3 hilabeteetako epealdian enpresak batez beste zuen plantilla.</p> <p>10. Baimena ematen diola Urola Kostako Udal Elkarteari, deialdiaren 7. oinarrian ezarritakoaren argitara, hainbat datu zuzenean egiaztatzeko, dagokion administrazio publikoarekin harremanetan jarrita.</p> <p>11. Eskabide honen bidez jasotako datu pertsonalak jasotzeko adostasuna adierazi eta baimena ematen duela datu horiek era automatikoan tratatu eta Udal Elkarteak araubideak ezarritako eran sortutako fitxategietan txertatzeko, deialdiaren 16. oinarriak ezartzen duenaren argitara.</p>	<p>6. Que la empresa solicitante o el centro de trabajo de la persona a contratar está ubicada en la comarca (Aia, Getaria, Orio, Zarautz o Zumaia).</p> <p>7. Que la empresa solicitante no está incurso en ninguna de las circunstancias previstas en el artículo 13 de la Ley 38/2003, General de Subvenciones.</p> <p>8. Su compromiso de que la persona contratada con arreglo a la presente solicitud no tenga relación de parentesco con el/la cónyuge, descendiente y demás parientes que tengan relación de parentesco por consanguinidad o afinidad hasta el segundo grado inclusive, con la persona empresaria o con quienes tengan el control empresarial, ostenten cargos de dirección o, en su caso, sean miembros del Consejo de Administración.</p> <p>9. Que la contratación objeto de esta solicitud supondrá la creación neta de empleo sobre la plantilla media total existente en la empresa en el periodo de los 3 meses inmediatamente anteriores a la incorporación de la persona contratada.</p> <p>10. Que presta su consentimiento a la Mancomunidad para la comprobación de diversos datos directamente ante las administraciones en cuestión, de acuerdo a la base 7ª de la convocatoria.</p> <p>11. Que los datos personales contenidos en la instancia son recogidos bajo su consentimiento y que acepta que dichos datos sean objeto de tratamiento automatizado e incorporados a los diferentes ficheros debidamente autorizados por la entidad, de acuerdo a lo estipulado por la base 16ª de la convocatoria.</p>
--	--

<p>Data Fecha</p>	<p>Sindadura eta zigilua Firma y sello</p>
------------------------------	---

B1 ERANSKINA / ANEXO B1

UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEAREN DIRU-LAGUNTZAK, LANGABEAK KONTRATATZEKO 2016	AYUDAS DE LA MANCOMUNIDAD UROLA KOSTA PARA LA CONTRATACIÓN DE PERSONAS DESEMPLEADAS 2016
KONTRATAZIOA EGIN IZANAREN JUSTIFIKAZIOA LEHEN ORDAINKETAREN ESKAERA	JUSTIFICACIÓN DE FORMALIZACIÓN DEL CONTRATO SOLICITUD DE PRIMER PAGO

ESKATZAILEA / SOLICITANTE

ENPRESA / EMPRESA

Izena Denominación		IFK zk. Nº CIF	
Helbidea Razón social		Udalerría Municipio	
Emaila		Telefonoa	

LEGEZKO ORDEZKARIA / REPRESENTANTE LEGAL

Izen-abizenak Nombre y apellidos		NAN zk. Nº DNI	
Enpresan duen kargua Cargo en la empresa			
Emaila		Telefonoa	

ESKAERA	SOLICITUD
Behean sinatzen duenak, goian adierazitako enpresaren izenean, honako eskatzen dio Urola Kostako Udal Elkarteari, langabeak kontratatzeke diru-laguntzaren haritik: diruz lagundutako kontratazioa egin izanaren justifikazioa onartu eta lehen ordainketa egiteko.	El abajo firmante, en nombre de la empresa arriba referenciada, solicita a la Mancomunidad Urola Kosta la aprobación de la justificación de haber realizado la contratación subvencionada y el pago de la primera parte de la subvención otorgada.

Data Fecha	Sindadura eta zigilua Firma y sello
----------------------	---

B2 ERANSKINA / ANEXO B2

UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEAREN DIRU-LAGUNTZAK, LANGABEAK KONTRATATZEKO 2016	AYUDAS DE LA MANCOMUNIDAD UROLA KOSTA PARA LA CONTRATACIÓN DE PERSONAS DESEMPLEADAS 2016
LEHEN JUSTIFIKAZIOA KONTRATAZIOAREN FITXA	PRIMERA JUSTIFICACIÓN FICHA DE LA CONTRATACIÓN

KONTRATATUKO PERTSONAREN DATUAK
DATOS DE LA PERSONA CONTRATADA

Izen-abizenak Nombre y apellidos		NAN zk. Nº DNI	
Helbidea Dirección		Udalerría Municipio	
Emaila		Telefonoa	
Emakumezkoa Mujer		Jaiotze-data Fecha nacimiento	
Gizonezkoa Hombre		Adina Edad	

Gizataldea zehaztu (markatu "x" hizkiarekin) / Señalar colectivo (señalar con una "x")

RGI jasotzaile titularrak Perceptores de RGI	
Lehen enplegua eskuratzen duten 35 urtetik beherako pertsonak Personas menores de 35 años que accedan a su primer empleo	
Kontratatu aurreko 18 hiletatik gutxienez 12tan Lanbiden izena emanda izan diren pertsonak Personas inscritas como demandantes al menos 12 meses en 18 meses anteriores a la contratación	
Beste gizataldeak Otros colectivos	

KONTRATUAREN EZAUGARRIAK / DATOS DEL CONTRATO

Enpresa Empresa		IFK zk. Nº CIF	
Lanpostua Puesto de trabajo			
Kontratu-mota Tipo de contrato		Lanaldia Jornada	
Iraupena Duración		Hasiera Inicio	Amaiera Fin

LANPOSTUAK SORTZEA / CREACIÓN DE EMPLEO

<p>Enpresako plantillaren batez bestekoa diruz lagundutako kontratazioaren aurreko hiru hilabeteetako epealdian Plantilla media total existente en la empresa en el periodo de los 3 meses inmediatamente anteriores a la incorporación de la persona contratada</p>	
<p>Enpresako plantilla diruz lagundutako kontratua hasitako hilabeteen Plantilla de la empresa en el mes de formalización del contrato objeto de la subvención</p>	

AURKEZTEN DIREN AGIRIAK (markatu laukitxoak "x" hizkiarekin) DOCUMENTACIÓN QUE SE ADJUNTA (señalar con una "x")

	Kontratutako pertsonaren NANren kopia.
	Kontratutako pertsona oinarriotan zehaztutako gizatalde zehatzen batekoa izanez gero, egoera hori egiaztatze agiriak.
	Kontratutako pertsonaren lan-kontratua erregistratu izanaren SEPEren agiriaren kopia eta Gizarte Segurantzako alta-agiriaren kopia.
	Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiak egindako ziurtagirien kopiak: ziurtagiri bat agertzen duena kontratatutako pertsona laneratu aurreko 3 hilabeteetako enpresaren batez besteko plantilla; eta bestea agertzen duena kontratatutako pertsona laneratutako hilabeteko enpresaren batez besteko plantilla.

	Copia del DNI de la persona contratada.
	Justificación de la pertenencia de la persona contratada a alguno de los colectivos específicos señalados en la convocatoria.
	Copia de la comunicación de alta del contrato del SEPE y copia del alta en la Seguridad Social de la persona contratada.
	Certificados expedidos por la TGSS de la plantilla media de la empresa beneficiaria: certificado de la plantilla media correspondiente a los 3 meses anteriores a la incorporación de la persona contratada objeto de la ayuda; y certificado de la plantilla media correspondiente al mes de incorporación de la persona contratada.

C1 ERANSKINA / ANEXO C1

UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEAREN DIRU-LAGUNTZAK, LANGABEAK KONTRATATZEKO 2016	AYUDAS DE LA MANCOMUNIDAD UROLA KOSTA PARA LA CONTRATACIÓN DE PERSONAS DESEMPLEADAS 2016
BIGARREN JUSTIFIKAZIOA BIGARREN ORDAINKETAREN ESKAERA	SEGUNDA JUSTIFICACIÓN SOLICITUD DE SEGUNDO PAGO

ESKATZAILEA / SOLICITANTE

ENPRESA / EMPRESA

Izena Denominación		IFK zk. Nº CIF	
Helbidea Razón social		Udalerría Municipio	
Emaila		Telefonoa	

LEGEZKO ORDEZKARIA / REPRESENTANTE LEGAL

Izen-abizenak Nombre y apellidos		NAN zk. Nº DNI	
Enpresan duen kargua Cargo en la empresa			
Emaila		Telefonoa	

ESKAERA	SOLICITUD
<p>Behean sinatzen duenak, goian adierazitako enpresaren izenean, adierazten du Udal Elkarteak langabeak kontratatzeke deialdiaren bidez diruz lagundutako kontratazioa iritsi dela diruz lagundutako epealdiaren erdira eta kontratuak indarrean jarraitzen duela eta, beraz, eskatzen du bigarren justifikazioa onartu eta bigarren ordainketa egiteko.</p>	<p>El abajo firmante, en nombre de la empresa arriba referenciada, declara que la contratación objeto de la subvención otorgada por la Mancomunidad para la contratación de personas desempleadas ha superado la mitad del periodo de contratación solicitado, por lo que solicita la aprobación de la segunda justificación y el pago de la misma.</p>

Data Fecha	Sindadura eta zigilua Firma y sello
----------------------	---

D1 ERANSKINA / ANEXO D1

UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEAREN DIRU-LAGUNTZAK, LANGABEAK KONTRATATZEKO 2016	AYUDAS DE LA MANCOMUNIDAD UROLA KOSTA PARA LA CONTRATACIÓN DE PERSONAS DESEMPLEADAS 2016
AMAIERAKO JUSTIFIKAZIOA BIGARREN ORDAINKETAREN ESKAERA	JUSTIFICACIÓN FINAL SOLICITUD DE SEGUNDO PAGO

ESKATZAILEA / SOLICITANTE

ENPRESA / EMPRESA

Izena Denominación		IFK zk. Nº CIF	
Helbidea Razón social		Udalerría Municipio	
Emaila		Telefonoa	

LEGEZKO ORDEZKARIA / REPRESENTANTE LEGAL

Izen-abizenak Nombre y apellidos		NAN zk. Nº DNI	
Enpresan duen kargua Cargo en la empresa			
Emaila		Telefonoa	

ESKAERA	SOLICITUD
Behean sinatzen duenak, goian adierazitako enpresan izenean, honakoa eskatzen dio Urola Kostako Udal Elkarteari, langabeak kontratatzeke diru-laguntzaren haritik: amaierako justifikazioa onartu eta hirugarren ordainketa egiteko.	El abajo firmante, en nombre de la empresa arriba referenciada, solicita a la Mancomunidad Urola Kosta la aprobación de la justificación final y el pago de la tercera parte de la subvención otorgada.

Data Fecha	Sindadura eta zigilua Firma y sello
----------------------	---

D2 ERANSKINA / ANEXO D2

UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEAREN DIRU-LAGUNTZAK, LANGABEAK KONTRATATZEKO 2016	AYUDAS DE LA MANCOMUNIDAD UROLA KOSTA PARA LA CONTRATACIÓN DE PERSONAS DESEMPLEADAS 2016
AMAIERAKO JUSTIFIKAZIOA KONTRATAZIOAREN FITXA	JUSTIFICACIÓN FINAL FICHA DE LA CONTRATACIÓN

KONTRATATUKO PERTSONAREN DATUAK
DATOS DE LA PERSONA CONTRATADA

Izen-abizenak Nombre y apellidos		NAN zk. Nº DNI	
Helbidea Dirección		Udalerría Municipio	
Emaila		Telefonoa	
Emakumezkoa Mujer		Jaiotze-data Fecha nacimiento	
Gizonezkoa Hombre		Adina Edad	

Gizataldea zehaztu (markatu "x" hizkiarekin) / Señalar colectivo (señalar con una "x")

RGI jasotzaile titularrak Perceptores de RGI	
Lehen enplegua eskuratzen duten 35 urtetik beherako pertsonak Personas menores de 35 años que accedan a su primer empleo	
Kontratatu aurreko 18 hiletatik gutxienez 12tan Lanbiden izena emanda izan diren pertsonak Personas inscritas como demandantes al menos 12 meses en 18 meses anteriores a la contratación	
Beste gizataldeak Otros colectivos	

KONTRATUAREN EZAUGARRIAK / DATOS DEL CONTRATO

Enpresa Empresa		IFK zk. Nº CIF	
Lanpostua Puesto de trabajo			
Kontratu-mota Tipo de contrato		Lanaldia Jornada	
Iraupena Duración		Hasiera Inicio	Amaiera Fin

LAN-KOSTUAK / COSTES LABORALES

	Lan-sariak Coste salarial	Gizarte Segurantzaren kostua Costes Seguridad Social	Kontratu amaierako kalte-ordaina (balego) Indemnización fin de contrato (en su caso)	Guztira Total
Lan-kostuak Costes laborales				

LANPOSTUAK SORTZEA / CREACIÓN DE EMPLEO

Enpresako plantillaren batez bestekoa diruz lagundutako kontratazioaren aurreko hiru hilabeteetan Plantilla media total existente en la empresa en los 3 meses inmediatamente anteriores a la incorporación de la persona contratada	
Enpresako plantilla diruz lagundutako kontratua hasitako hilabeteetan Plantilla de la empresa en el mes de formalización del contrato objeto de la subvención	

AURKEZTEN DIREN AGIRIAK (markatu laukitxoak "x" hizkiarekin)
DOCUMENTACIÓN QUE SE ADJUNTA (señalar con una "x")

<input type="checkbox"/>	Diruz lagundutako kontratuaren epealdiko enpresaren TC1 eta TC2 dokumentuen kopiak.
<input type="checkbox"/>	Diruz lagundutako kontratuaren nominen kopiak.
<input type="checkbox"/>	Copia de los documentos TC1 y TC2 de los meses correspondientes a la contratación.
<input type="checkbox"/>	Copias de las nóminas de los meses correspondientes a la contratación.